



Espainiako Senatuko lehendakaria bertan euskara erabiltzearen kontra agertu da / 18



Bi polizia arin zauritu zituzten Donostian lehergailuz egindako atentatuan / 4



Nafarroako Euskararen Legea aldatuko dute PSN-PSOE eta EAK gobernua osatuz gero / 5


Egunkaria

Igandea, 1991ko uztailak 28 / II. urtea / 199. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

GIZARTEA

Apaiz baten semearen kontakizun lazgarriak

Manuel Garate Urbistondo apaiz baten semea da. Bere bizitza xelebrearen berri eman dio Leitzan auzo duen Patziku Perurena idazleari: aita apaizaren trikimainak, aitonak amari haurdun geratzeagatik ezarritako zigorr beldurgarriak... / 11-13



Eli Galdos.

Lurraldea eta Eli Galdos bildu egingo dira abuztuaren 5ean

Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusia Lurraldea koordinadorako ordezkariekin bilduko da datorren abuztuaren 5ean, Gipuzkoa-Nafarroa autobidearen auziaz hitzegiteko. Jonan Fernandez Lurraldeako bozeramaleak eman zuen atzo bileraren berri EGUNKARIAren galderei erantzunez, eta elkarrizketa egiteko Lurraldeak eskatu zuela argitu zuen. Zita zehaztu aurretik Lurraldeak EAJrekin harremanen bat izan duela onartu zuen Fernandezek. / 4

EGUNKARIA nahasi nahi zuten berri eta paperak / 9

BESTERIK

POLITIKA

Baztan: udal berriak eta giro berria Baztanen hauteskundeak eta gero / 6

NAZIOARTEA

Lehendakaritza Kolegiatuak gatazkalekuetara indar armaturik ez bidaltzeko agindu dio Kroaziari / 19

KIROLA

Kevin Richardsonek Aston Vilan jokatu du datorren denboraldian / 27

Indurain txapeldun

Atzoko erlojupekoa irabazi ondoren horiz jantzita sartuko da gaur Parisen

Tourreko txirrindularirik indartsuena zela erakutsi zuen berriro ere Miguel Indurainek atzoko erlojupeko etapa irabaztean. Bere bigarren etapa garaipenaren ondoren, gaurko tramitezko etapa baino ez zaio gertatzen Banestoko txirrindulariari Pariseko helmugara horiz jantzita heltzeko.

Indurainek sekulako lasterketa egin zuen Lugny eta Maconen artean korritutako 57 kilometroko lasterketan. Atarrabiatarak 27 segundu atera zizkion bere areririk handiena zen Gianni Bugno italiarrari.

Indurain eta Bugnoren arteko alde handiegia zenez, atzoko etapen jokoan zegoena hirugarren postua zen, izan ere, Chiappucci eta Motte artean segundu gutxi batzuk besterik ez bait zeuden. Carrera taldeko gizonak bazuen horren berri eta bera izan zen hogeigarren kilometroan txirrindulari guztien artean denborarik onena egin zuen gizona. Hala ere, indartsu hasi arren Indurain, Bugno eta Lemond nagusitu zitzaizkion azkenean Chiappucciri.

Chiappuccik ondo hasi eta gaizki amaitu bazuen, ez zen gauza bera gertatu Gianni Bugnorekin. Gatorade taldeko gizona ez zen oso fin ibili lehen hoge kilometroetan, baina hortik aurrera Indurainek bakarrik lortu zuen denbora hobe.

Atzokoa irabazi eta gero, garaile igoko da Indurain Pariseko podiumera gaurko etapa errazean ezuste handirik gertatzen ez bada. Pirinioetan mailot horia jantzi zuenetik sendo agertu da txirrindulari nafarra, eta maila goreneko aurkariak izan arren, hauek indarge azaldu dira Atarrabiako mozkotearen aurrean. Erlojupekoetan etsairik gabe, Pirinio eta Alpeetako mendian nagusi. Ordekan fin. Akats bat bera ere ez du izan Banestoko txirrindulariak Tourrean.

Onena nafarra izan bada ere, Banesto taldeko txirrindulariek bereztat egin duten lana ere erabakiorra izan da lidergoari eusteko. Tourrean Banestoko liderra berak izan behar zuela frogatu beharra izan du hala ere karreran. / 21-26



Val Louroneko gainean mailot horia jantzi zuenetik egunero igo da Indurain podiumera.

MONDELO / EFE

SANINAZIOAK ALGORTAN ETA AZPEITIAN / 14-16